

Sinestunak mendez mende

La percepción y comprensión religiosas del mundo y del hombre tiene un pasado de desarrollo progresivo y multicultural, hasta llegar al estadio actual de cada religión y de cada religiosidad personal. Por ello, el creyente es, por una parte, depositario de un largo pasado y, por otra, puede ser creador vivo de sus convicciones y vivencias religiosas. En la tradición judeo-cristiana, la Biblia es testigo de cómo se desarrollaron las creencias y religiosidad comunitarias, de forma paulatina.

Euskal erlijiotasuna, gainerako herri eta kulturetakoa bezala, iragan luze eta emankor batean ondutako zerbait izan da; sorterri ugari izan duena da, iturri ezberdinetatik edan duelako eta jende askoren gogo-emaizta izan delako. Unean uneko erlijiotasuna baliozkoa gertatu zitzaizen gure aurreko belaunaldiei, eta bakoitzea erlijiotasun hartan zituen erroetatik elikatu da, garaiko gizarteari eta norberaren bizitzari zentzu onargarria bilatzeko.

Gaurko erlijio-munduan

Munduan, gero eta hobeki dakigunez, erlijio eta erlijiotasun-mota ugari dugu, eta munduko eskualde ezberdinetan erlijio bizitzak joera eta bilakaera ezberdin eta kontrajarriak ere erakusten dizkigu.

Benetan, mundu osotik etorrira Vatikanoko II. Kontzilioan bildutako 2.000 eta gehiago Gotzainetako hainbatek ondotxo zekien munduko erlijio-aniztasunaren berri, kultura "kaskarreko" herrietatik ez ezik ongi ezagunak zituzten kultura handiko herrietatik zetozelako ere.

Misioen historia –eta ez Misio katolikoena bakarrik– kolonialismoari loturik garatu zen Aro Moderno eta Garaikidean, eta horregatik elizgizonek egitura kolonialek zekarten jokatoldeaz kutsaturik jardun zuten; teologia

bera testuinguru horretan murgildurik aritu zen. 1960ko hamarkadatik deskolonizazioak ezarri dituen baldintzen barruan, hori dena oso aldatu da, halabeharrez aldatu ere: apal-apal, ikusi eta ikasi beharra zegoen herrien kultura eta erlijioetatik, inolako elkarriketa jatorri nahi baldin bazen.

Jarrera berri horretarako oinarri teorikoak bilatu nahi izan dira azkeneko berrogeita hamar urteetan, eta Kontzilioetik bertatik hasita, teologo kristauek (katoliko-protestante) eta pentsalari ez-kristauek erlijioarteko harremanberrikuntzarako gogoeta bizkorra abiarazi dute, hainbat Unibertsitate eta topalekutan.

Gizakia bere buruaz eta munduarekiko galderaz betetako izakia da: nor eta zer den jakin nahi izan du, non eta zertarako zegoen argitu, mundua nola ulertu behar duen, nor den bakoitzea gainerakoen artean eta "jainko" deituen aurrean. Jakin-min hori asetzeko sortu zituen mitologia, erlijioak, geroxeago filosofoak, eta oraintsu erlijioen zientziak.

Ibilbide horretan, Kristautasuna eta Kristandadea ere sortu ziren, mundu osoa fede berrira ez ezik laster sortu eta asmatutako erakundeetara erakartzeko helburuarekin; baina, orain oraingoz, azken xede hori ez da lortu: 2009rako adierazi denaren arabera, kristau guztiak % 33 izango lirateke munduan, kris-



tauen ehuneko hau erlijioen arteko altuena izanda ere motz geratu da salbatu beharko litzatekeen mundu osoa Elizak bereganatzetik.

Iraganeko erlijiotasunari begira

Egungo datu horretatik goazen gizadiaren erlijioen historiara, sar gaitezen denbora-tunelean barrena. Orain gutxi, XVI. mendean eratu ziren Eliza protestanteak; zerbait lehenago sortu zen Islam-a (621-633); lehen kristauak orain bi mila urte eskasekoak ditugu, ez gehiago.

Kristo aurreko lehen milakada, emankorra izan zen erlijio kontutan: Biblia judua (gure Testamentu Zaharra) orduan joan zen osatzen, ahozko tradizioen indarrez eta liburuz liburu idatziz. Pertsian, Zaratrusta-k (K. a. VII. ean), erlijio-fundatzaileetan lehenak, milakada hartan abiarazi zuen bere erlijioa. Budismoa ere ordukoa dugu, Gautama Buda K. a. V. mendekoa baita, eta Grezian milakada horretan garatu zen mitologia eta jaikoekiko gogoeta zahar eta berriua, literaturan bezala filosofian.

Baina horiei guztiei aurrea hartuta zetozen antzinagoko erlijio handiak, Mesopotamian eta Egiptoan, Indian eta Txinan, herri eta inperioei loturiko erlijiotasunak, beren ofizialtasunak ezagutu zituztenak, erlijiotasun herri-tarraren gainetik egon nahi zutenak, zeren eta herriak beti izan baitu erlijio-kontutan bere kabuzko bideetatik ere ibiltzeko grina.

Zaharrak dira, zinez, azken estatu-erlijio ofizial horiek, Biblia baino lehenagokoak: Indiako Veda liburuak K. a. ko 1500-900.etan idatzita zeuden, eta erlijioa antolaturik vedismoaren barnean. Mesopotamiako Sumer hiri-estatuan erlijio-bizitzak bere antolakuntza

soziala zuen K. a. 3000-2800 inguruan. Egiptok zerbait lehenagotik (K. A. 3100 inguruan edo) bere idazkera hieroglifikoa ("sakratua" alegia) asmatuta zeukan.

Badirudi hori dena oso urruneko zerbait dela; baina, egiaz, gizadiaren historian azken ordukoa izan dela esan daiteke: gizakiaren erlijiotasuna, modu batera edo bestera, askoz lehenagotik zetorren, noizko data garbirik ez dugun garaietatik. Orrialde hauetan esanda dago horretaz zerbait.

Hainbat mila urtetatik honantz Euskal Herria ere hemen dago, bere kultura eta erlijiotasunarekin, Kristautasuna jaio aurreko mendeetan. Hala ere, orokorki Elizarik gabeko euskal herritar haien erlijiotasunak ez du gure arretarik irabazi, nahiz eta orain beste erlijioekiko kristauen jarrerak aldatzen ari diren. Aurreko batean esandakoak osatzeko jasoko dut hemen ondoko testu hau:

"Eliza katolikoak ez du arbuatzen erlijio hauetan egiazko eta santu denik ezer. Benetako begirunez ikusten ditu haien jokatzeko eta bizitzeko erak, agindu eta doktrinak, nahiz eta berak aitortzen eta irakasten dituenekin gauza askotan bat etorri ez, gizaki guztiei argi egiten dien Egia haren distira agertzen baitute ez gutxitan", dio hitzez hitz Vatikanoko II.ak.

Gero eta argiago dauka teologia katolikoak ere mundu osoko garai guztietako erlijioak gizakiarentzat salbazio-bide izan direla, eta gaur egun ere hala direla. Teologia zahar eta berrituagoek ikusiko dute, salbamen-bide horietaz zer pentsatu eta esan behar duten XXI. mendean.

Joseba Intxausti